



TXILLARDEGI

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, «TXILLARDEGI», AMASAKO BASERRI BATEAN BIZI DEN ANTIGUAKO DONOSTIARRA DA, ANTIGUTAR DONOSTIARRIK BALDIN BADA BEHINTZAT. IDAZLEA, HIZKUNTZALARIA, UPV-N IRAKASLEA... MILITANTE ABERTZALEA, EUSKALTZALE SUTSUA. ELKARRIZKETA HASI ETA BEREHALA NABARI DA AKTUALITATEA GERTU-GERTUTIK SEGITZEN DUELA. «BERE-BEREAK» DITUEN GAIEI BURUZKO IRITZIAK TAJUZ EMATEN DITU, BAINA BAITA A PRIORI HAIN «BEREAK» EZ DITUEN GAIEI BURUZKOAK ERE, BATZUTAN ZIFRA ETA GUZTI.

«Allirengan nafar gizarte osoaren krisialdia islatzen da»

VJUGOSLABIA ZENAREN GATAZKA AUTODETERMINAZIOAREN BIDEZ SOILIK KONPON DAITEKE

AZKENALDIAN mundu zabaleko aktualitateari buruz hitzegitea Jugoslabia zenaren gatazkari buruz hitzegitea da...

—Bosniakoak labur-labur esplikatzeko gai al zara?

—Hura ulertzeko faktore soziologikoak kontutan izan behar dira. Bosnia beti izan da Jugoslabia txiki bat, hots, ez da Kroazia edo Serbia bezalako nazionalitate homogeneo, hiru gizatalde ezberdinen kokagune baizik. Kroazian kroaziarrak dira nagusi eta Serbian, serbiarrak. Bosnian, berriz, ez.

—Suitzako elkarrizketak...

—Nik uste dut Bosniakoak gizatalde bakoitzaren autodeterminazioaren bidez baizik ez dela konponduko. Horrek egungo Bosnia hiru puskatan banatzea ekar dezakeela? Seguru. Banaketa nola bideratzen den beste arazoa da, noski, eta ez txikia. Baina Suitzatan ezin zen hori planteiatu. Zergatik? Kantzileria guztiek oso estrategia merkeak dituztelako Jugoslabia zenarekiko. Gauzak ahalik eta gutxien mugitu daitezela

dute helburu.

—Aita Santuak esan berri du Bosniakoak bekatu askoren ondorio dela...

—Ez dut inolaz ere sinesten Jainkoaren madarikaziorik dagoenik. Absurdoa da. Franco eta Stalini, bi kriminal handi aipatzearen, ohean hil ziren; mila pertsona fin eta prestu, berriz, izugarriko baldintza txarretan. Palestinarrak, esate baterako, zein bekatu egin dute aspaldi honetan?

—Nazio Batuen Erakundeak Jugoslabia, Somalia, Palestina edo Irak-ekiko hartu duen jokarari zer deritzozu?

—NBE konturatzen da zenbait lekutan gauza ikaragarriak gertatzen ari direla. Beste askotan, berriz, ez omen da ezertaz jabetzen. Adibidez, orain dela gutxi irakurri dudanez, «ostiak» izeneko herri fino-hungariarra izugarriko genozidioa jasaten ari da, deportazio masiboekin eta guzti. Erantzuleak Moskuko agintariak dira. Komunikabideek ez dute honi buruzko txintik ere esaten. Estoniarrak —hauek ere fino-hungariarrak, «ostiak»-en lehen-

gusuak nolabait esateko—erru-siarrekin zeinen «gaizki» portatzen ari omen diren, berriz, gero eta maizago entzuten dugu... hizkuntz-eskakizunak «gehiegizkoak» direla, zenbait lege «arrazista»-tzat jo daitekeela... hau eta beste. Beste adibide bat, Chomskyk askotan aipatua, Timorekoa da. NBEk ez du ezer esaten.

—Aurki Clintonen agintaldia hasiko da. Zerbait espero al daiteke?

—Estatu Batuetan politika guztia eskuin aldera eskoratuta dago. Partidu Sozialdemokrata ere Gerra garaian desagertu zen. Izan ere, ezin da pentsatu Clinton pertsona aurrerazale denik. Estatu Batuak munduko gendarme da egun eta bere gendarmekeriak bazter guztietan nabaritzen dira. Ez dut uste hori funtsean aldatuko denik. Hala ere, sinistu nahi nuke Clintonekin hobe-toxe izan daitekeela. Esperantza handirik gabe dit, baina sinistu nahi nuke.

—Marea beltza gehiegi azkenaldian, ezta?

—Bai. Erantzukizuna pilotu edo kapitainari leporatu ohi diete, baina... ez dakit. Lehengoan irakurri nuen 28.000 petroluntzi pasatzen direla urtero Mediterraneotik barrena. Horrelako trafikoa-rekin, hankasartze edo hutsegite humanotatik aparte, probabilitate-legea soilik kontuan izanik, agian «normal»-tzat jo behar ditugu istripuak. Ez dakit. Dena den, behar besteko segurtasun-neurri hartzen ez delakoan nago.

—EEK PSOErekin bat egin du azkenean...

—Ez da harritzekoa. Bandres ez da sekula abertzale izan. Onaandia bai, eh?, baina Bandres ez. Orain dela hogei urte, Bandres eta bera bezalakoak «felipeak» deitzen genituen. Argudio pseudosozialisten bidez espainar inperialismoa onartzen zuen jendea zen. Horiek ez dira inoiz benetako sozialista izan eta are gutxiago abertzale. Iritsi dira zegokien tokira, hau da, espainar sasiezkeriat alderdira. Harrigarriena eta benetan sentitzen dudana zera da, funtsean abertzale diren batzuek... Olaberrik, Lizun-

TESTUA
X. IBARRA

MARRAZKIA
IVAN LANDA
ARGAZKIA
IKOR KOTX

▼ BANDRES ETA EE-KO BESTE ASKO EZ DIRA SEKULA BENETAKO SOZIALISTA IZAN ETA ARE GUTXIAGO ABERTZALE; ORAIN IRITSI DIRA HASIERA-HASIERATIK ZEGOKIEN TOKIRA, PSOE-RA, HOTS, ESPAINIAR SASIEZKERTIARREN ALDERDIRA

diak... nola agoantatu duten orain arte.

—Honez gero, EEko batzuek lanpostua segurtatu dute etorkizunari begira...

—Mundu guztiak daki Europan ez dagoela Estatuari PSOE bezain lotuta dagoen alderirik, hau da, kargu publikoen proportzioa ikaragarria dela afiliatuen artean. PSOE gobernuaren

agentzia bihurtu da, etorkizun pertsonala salbatzeko lanbide eta karrera asko eskaintzen duena. Beraz, nahikoa normala da burua Espainian dutenek hortan pentsatzea. Mario Onaindiaren karreran, esate baterako, Madril en laguntza nabarmena izan da. Madril en izugarri ondo tratatu dituzte beti EEkoak. Zergatik? Espainoiista hutsak zirela lehenen-

go momentutik ikusi zutelako.

—Allik abertzaletzat jotzen du bere burua...

—Nafarroan saltsa mental ikaragarria dago. Han beti esistitu dira oso karlismo eta erregionalismo aurreratuak. Askotan ematen du gurekin daudela. Nere ustez, Alli saltsa betean dago. Alde batetik, ez da karlismotik guztiz atera eta, bestetik, konturatzen

da hortik ezin dela inora joan. Nere ustez, Allik izugarri ondo islatzen du Nafarroako gizarte osoaren krisialdia. Nafar erdiek ere ez dakite zer diren. Horra hor Indurainen kasua. Indurain «politika» gertu-gertutik bizitzen ez duen herriko seme bat da. Berak eginiko deklarazio batzuetan abertzale ematen du; beste batzuetan, berri, justu kontrakoa.



Filipe Bidart, gogoan

▼ ARTISTA BATEN LANA PUSKATZEA EDO DESEGITEA BANDALISMO HUTSA IRUDITZEN ZAIT

Azkenaldian Txillardegiren gehien inpaktatu duen berria Filipe Bidarten kondena izan da. «Bizi guztiko kartzela. Epaiketa hori historikoa izan da, Burgosekoa bezalakoa. Ez dut uste herriak behar besteko kontzientzia izan duenik. Bidart abertzale aparta da. Epaiketa horrek oihartzun handiagoa merezi zuen».

Txillardegiren Antiguako donostiarra da eta, noski, Sarriegiren marbak buruan darabilzki dagoeneko. «San Sebastian bezperan Arrano Beltzan afalduko dut, ohi bezala. Danborradan parte hartzeko esan didate, baina, Amasan bizi naizenez, ezin dut egunero entsaioetara joan. Eta ez zait ondo iruditzen "señorito"rena egitea, hots, entsaiorik egin gabe, danborradan jotzea».

Antigutarra denez, Benta Berriko auziak biziki kezkatzen du. «Negargarria. Espekulazioa

konstante bat izan da Donostia-ko historian. Argi ikusten da nolako interesak mugitzen diren hor. Azkenean, etxebizitza merke gutxi».

Eta Errealak? «Ez dut kasu handirik egiten, azken batean soziedade anonimoen arteko kontuak dira. Futbola, egun, inbertsio mota bat da, negozioa. Horra hor zer egin duen Ruiz Mateosek. Ikuspuntu honetatik ez zait batere dramatiko iruditzen Errealari gertatzen ari zaiona, ezta Madril en kontra bat eta bost galteza ere. Aizu, sei negatibo! Toshack-ek toaila bota beharko du!»

Zer deritzo azkenaldian izan diren eskultoreen arteko liskarriak? «Lotsagarria. Artistak askatasun osoa behar du izan. Gustatu ala ez gustatu. Ez dago eskubiderik artista baten lana puskatzeko. Bandalismo hutsa da. Hori bai, "esto es consecuencia del

clima de violencia" eta egin diren antzeko beste interpretazio batzuk absurdoak dira. Kontuan izan behar da artisten arteko harremanak askotan ez direla oso modelikoak izan. Hori ez da gaurko kontua. Esate baterako, Chiricok orain dela berrogeita hamar urte La Habanan egin zuen erakusketa halamoduz bukatu zen... Baina, esan bezala, hori bandalismo hutsa iruditzen zait».

Goardia zibil askok narkotrafikoarekin duten harremana agerian gelditu da... «Ez da oraingo kontua. Askotan gaizkile eta polizien arteko mugak ez daude batere garbi. Are gutxiago Euskal Herrian. Bestalde, Madril en ikuspuntutik etsai nagusia —eta agian bakarra— ezker abertzalea dela kontuan izanik, normala da edozein prozeduraz baliatzea minbizi hau kentzeko».

▼ ERREALA? SEI NEGATIBO. AIZU! TOSHACK- EK TOAILA BOTA BEHARKO DU!